

2017KO APIRILEKO EFEMERIDEAK

(Ordu guztiak denbora unibertsalean eman dira, gehitu 2 ordu ofiziala kalkulatzeko)

Poloetan kokatutako edozein punturen batzbesteko abiadura luraren ardatzarekiko: 0 Km/h

Ekuadorean kokatutako edozein punturen batzbesteko abiadura luraren ardatzarekiko: 1.668 Km/h

Donostian kokatutako edozein punturen batzbesteko abiadura luraren ardatzarekiko: 1.220 Km/h

BEHAKETA PROPOSAMENAK

-Begi hutsez:

-Hilaren 1an, 07:00tan, Perseoko Algol izarraren distira minimoa. Magnitudea 3,3tik gertu. Hilaren 4an, 7an, 9an, 12an, 15an, 18an, 21an, 24an, 27an eta 29an izango dira.

-Hilaren 2an, 21:00tan, Delta Cephei izar aldakorren distira maximoa. Magnitudea 3,5etik 4,4ra aldatzen zaio 5,366 egunean behin. Hilaren 8an, 13an, 18an, 24an eta 29an izango dira beste maximoak.

-Hilaren 7an, 21:00tan, Eta Aquilae izar zeifeidarraren distira maximoa; magnitudea 3,5etik 4,4ra aldatzen zaio 7,177 egunean behin. Hilaren 15an, 22an, 29an izango dira beste maximoak.

-Teleskopioarekin:

-Artizarraren fase gorakorra ikus daiteke, ilargiaren alderantzizkoa dena.

-Hilaren 7an, Io satelitearen itzala ikusi ahal izango da Jupiter zeharkatzen, mendebaldetik ekialdera.

-Hilaren 6an Io, Europa, Ganimedes eta Calisto ikus daitezke berezko ordenean, Jupiterren ekialdean.

-Hilaren 10an, Io, Ganimedes, Europa eta Calisto ikusi ahal izango dira orden honetan Jupiterren mendebaldera.

-5,42 urte periodoko 41P Tuttle-Giacobini-Kresak Kometa, periheliotik pasako da. 6 magnitudekoa, bi artzen eta herensugearen kontelazioen artean mugituko da. 1958. urtean aurkitu zuen, Horace Tuttle-k, Giacobini ynen-ek berriro ikusi zuen 1907an, eta 1951an Lubor Kresak-ek.

-Hilaren 28an, 18:17an,(U.T.) ilgora fin batek Aldebaran izarra ezkutatu du, ordu horretan egunargia denez, teleskopioarekin bakarrik ikusi ahal izango da. Izarra 19:18tan (U.T.) berragertuko da berriro argitutako ilargiaren aldetik.

ILARGIA APIRILEAN

01 librazio maximoa latitudean ($b = 6,7^\circ$).

01 09:08tan, konjuntzio geozentrikoan Tauroko Aldebaran izarrarekin, $0,3^\circ$ ra.

03 18:40tan, Ilgora.

06 librazio maximoa longitudean ($l = 5,6^\circ$).

07 04:28tan, konjuntzio geozentrikoan Leoko Regulo izarrarekin, $0,7^\circ$ ra.

07 09:17tan, Goranzko nodotik pasatuko da.

10 22:58tan, konjuntzio geozentrikoan Jupiterrekin, $2,1^\circ$ ra.

11 06:09tan, Ilbetea.

11 11:06tan, konjuntzio geozentrikoan Virgoko Spica izarrarekin, $6,1^\circ$ ra.

14 librazio minimoa latitudean ($b=-6,6^\circ$).

15 06:38tan, konjuntzio geozentrikoan Escorpioko Antares izarrarekin, $9,6^\circ$ ra.

15 09:48tan, Apogeotik pasatuko da. Ilargiaren eta Lurraren arteko distantziarik handiena: 405.488km (aurreko perigeoan baino 41.625 km gehiago).

16 18:26tan, konjuntzio geozentrikoan Saturnorekin, $3,2^\circ$ ra.

19 09:48tan, Ilbehera.

21 22:28tan, beheranzko nodotik pasatuko da.

22 librazio minimoa longitudean ($l=-7,4^\circ$).

23 21:34tan, konjuntzio geozentrikoan Artizarrarekin, $4,9^\circ$ ra.

26 12:17tan, Ilberria.

27 16:13tan, Perigeotik pasatuko da, Ilargiaren eta Lurraren arteko distantziarik txikiena 359.341 km (aurreko apogeoa baino 46.147 km gutxiago).

28 01:50tan, konjuntzio geozentrikoan Pleyadeekin, $9,1^\circ$ ra.

28 09:16tan, konjuntzio geozentrikoan Marterekin, $5,7^\circ$ ra.

28 17:35tan, konjuntzio geozentrikoan Tauroko Aldebaran izarrarekin, $0,5^\circ$ ra. 18:17 eta 19:18 artean, izarra ilargiak ezkutatu aurkituko da (Teleskopioarekin ikus daiteke).

PLANETAK APIRILEAN (LURRAREN ORBITA-ABIADURA: 107.280 km/h)

Merkurio (Arratsalde amaieran ikusi ahal izango da hilaren 10 arte) orbita-abiadura 172.440 Km/h

Hilabetea mendebaldeko elongazio maximoan hasiko da (19°) eta $0,2$ magnitudean, ondorioz erraz aurkituko dugu arratsalde amaieran mendebalde ipar-mendebaldeko zeruertz gainean, baina hilaren 10 arte soilik, hilaren 20an behe konjuntzioan aurkituko bait da. Igoera zuzena 2h eta 1h artean, deklinazioa 14° , 16° eta 8° bitarte. Ariesen hasiko du hilabetea eta Piscisera pasako da. Magnitudea oso azkar jetsiko da $0,7$ tik $2,7$ ra.

Artizarra (Gauaren amaieran ikusi ahal izango da) orbita-abiadura 126.000 Km/h

Eguzkia baino orduete lehenago aterako da hilaren 1an, eta ordu bat eta erdi lehenago hilaren 30an. Distira areagotuz joango da egunez egun, -4,6 magnitudea iritsi arte hilaren 26an. Igoera zuzena 0h, deklinazioa 7° eta 2° artean. Hilabete guztia Piscisen . Magnitudea -4tik -4,6ra igoko da.

Marte (Gauaren hasieran ikusi ahal izango dugu mendebalde lpar-mendebaldeko zeruertze gainean. Distira gutxiagotuz doa, eta geroz eta goizago ezkutatu da. Igoera zuzena 3h eta 4h artean, deklinazioa 17° eta 22° bitarte. Hilabetea Ariesen Hasiko du eta Taurora pasa. Magnitudea 1,8tik 1,9ra pasako da.

Gauaren hasieran ikusi ahal izango dugu mendebalde lpar-mendebaldeko zeruertze gainean. Distira gutxiagotuz doa, eta geroz eta goizago ezkutatu da. Igoera zuzena 3h eta 4h artean, deklinazioa 17° eta 22° bitarte. Hilabetea Ariesen Hasiko du eta Taurora pasa. Magnitudea 1,8tik 1,9ra pasako da.

Jupiter (gau osoan ikusi daiteke) orbita-abiadura 47.160 Km/h

Eguzkia sartu eta hoge minutura azalduko da hilaren 1an, behaketarako egoera onean. Hilaren 7an oposizioan aurkituko da,. Igoera zuzena 13h, deklinazioa -5°. Hilabete osoa Virgon emango du. Magnitudea -2,4an mantenduko da.

Saturno (gau amaieran ikusi ahal izango dugu) orbita-abiadura 34.560 Km/h

Egonkor aurkituko da hilaren 6an, eta ondoren eretrogradazio mugimendua hasiko du mendebalderantz. Behaketarako egoera hobetuz joango da Ekainaren 15 arte, oposizioan aurkitzen denean. Igoera zuzena 18h, deklinazioa -22°. Hilabete guztia Sagitarion emango du. Magnitudea apur bat igoko da, 0,4tik 0,3ra.

Hilaren 1ean 20:50tan, Titan elongaziorik handienez planetatik mendebaldera.

Hilaren 9an 19:15tan, Titan elongaziorik handienez planetatik ekialdera.

Hilaren 17an 19:20tan, Titan elongaziorik handienez planetatik mendebaldera.

Hilaren 25an 17:32tan, Titan elongaziorik handienez planetatik ekialdera.

Urano (ezin izango dugu ikusi hilabete honetan) orbita-abiadura 24.480 Km/h

Konjuntzioan aurkituko da hilaren 14ean. Igoera zuzena 1h, deklinazioa 9°. Hilabete guztia Piscisen. Magnitudea 5,9an mantenduko da.

Neptuno (Hilabete honetan ezin izango dugu ikusi) orbita-abiadura 19.440 Km/h

Europatik ezingo dugu ikusi hilabete honetan. Igoera zuzena 23h, deklinazioa -7°. Hilabete guztia Acuarion emango du. Magnitudea 8,0tik 7,9ra pasako da.

APIRILEKO BESTE EFEMERIDE BATZUK

- Hilaren 1an larunbata, eguerdian, 2.457.845. egun juliotarra hasiko da.
- Egunak 12 ordu eta 45 minutuko iraupena du hilaren 1ean, eta 14 ordu eta 07 minutuko hilaren 3an.
- Hilaren 11an, judutar pazkoa ospatzen da (hebrear herriaren liberazioa Egiptoko esklabotzatik).
- Hilaren 15an 12:00tan, Denboraren ekuazioa nulua izango da.
- Hilaren 16an Pazko-igandea, Martxoaren 21 ondoren dagoen lehen hilbetearen ondorengo igandean ospatzen da. Ondorioz, martxoaren 22 eta apirilaren 25 artean eman daiteke.
- Hilaren 16an ere, pazko ortodoxoa ospatzen da. Aurten biak egun berean emango dira, nahiz eta egutegi ortodoxoan, egun hau apirilak 3 izan.
- Hilaren 18an, 18:54tan, eguzkia itxuraz Aries konstelazioan sartuko da (28,92°).
- Hilaren 19an, astrologiaren arabera, eguzkia Tauro konstelazioan sartuko da (30°). Zodiakoaren zeruko mugek eta izen bera daramaten zodiakoko konstelazioak ez dira berdinak.